

ERIoTZA

Nundik ator, esain, errondari zentoi?
 Nundik ator, esain, sorgin mintzul ori⁷
 Txapiñez oiñak ta jazki baltzetan goi,
 nundik ator olan, arnasaz sargori?

Nora oa, eize-txakurrez inguru,
 esku-bete laiño ezpan-gaiñ dokala,
 aize zaurituak daitez an ixildu
 ta zarrak daitez an askatu, goibela?

Nora oa, illeun gerizaz betea,
 arrats euritsu ta izar itzalia,
 basauntz igeskor ur egarriz asean,
 uso txunditu lez ganduz estalia?

Norantza oa —ots!—, urrutiko ispillu,
 ñarñar-istalari makopean zear,
 maite-jarraigoa atzetik oin-zalu
 arrikatzeko soz nasi ta ler-bear?

Nungo are-pillo, nungo elbitz-meta
 jgaroaz oa, egunen ertz-barna?
 A, eiztari izukaitz, ire leiaketa!
 Nor opa ete don erakar eugana?

Ire ispillu otz gaiñ ukur dago gaua;
 egal illunak be —au olerki otza!—
 gandu ozkirria zeatu darua,
 artzari dauala leiaren isatsa.

Nundik ator, esain, errondari zentoi?
 Nora oa, illeun gerizaz betea?
 Ez eistan barruan dardar ein izukoi:
 oraindik bizia yonat nik maitea.

BEKOKI OTZA

Eguzkia nasai
 ebillen goi-ortzez...
 nik ezpan gorri zu
 jo zindudan goizez.

Su-zuzi a legez
 zindudazan uste:
 soin-gogo ederra,
 bero, sua beste.

Baiña nik ikutu
 neutzun bekokia
 arri zuri zendun,
 otza, su bagia.

Soin zati galanta,
 dizdiz aundikoa;
 baiña aragi txatal
 bizi urrikoa.

Udaz goiak zear
 eguzkia eder...
 Aretik ez artzen
 bekokiak ezer?

Goizez, ixil-ixil,
 nik zu aoz iku,
 ta lili guria
 otz neban aurkitu.

Zure bekokia,
 ai!, su barik dago:
 izotza bera lez,
 edo-ta otzago?

Ezer esateke
jo zendun bidetik...
Eta antxe, muturik,
jarraitu neban nik.

ISTINGA LOKARTUA

Ur geldia dot aurrez,
lur zar baten muga;
sasiz, zorna-bedarrez
dau gaiña, argi baga,

Igaz ura etorren
ito-itoka goitik,
gaur ezta ezer jaisten
gaiñeko usa itxitik.

Aizeak dautsaz doi-doi
egalak mugitzen,
ixillak, aragikoi,
daularik mosutzen.

Sasian txintaz dagon
txoriak al daki
bere goi-zorion
kantuaren barri?

Zugatzen amets arte
ixil lokartuan,
zaratarik bage
arrats illunduan...

Igan eztoz ederrik,
istinga zabala,
eta bai larri-miñik
i ikusiz maskala.

Igaz ura etorren
usak ixuria,
gaur ozta yak mugitzen
gaiñalde atsia.

* * *

Euskal lur begitango,
sorterri maitatu:
etzaita jzan egundo
istinga lokartu.

BELAKIA

Argi-lore eguzkia,
aren euritan, itxas ertzez ni.
Belaki bat ertzean,
urak jaurtia, noski.

Oa, ta asetu adi;
zein arro ta galai abil urez!
Ikus, gora ta bera,
jostaillu ugin-aparrez.

Len tximur, orain ase,
ertzik ez, itxas urdiñez bakar
Gizon biotz urduri,,
aditu, egik oar!

Elaitxo bat yoako;
gain ezarri arren, geldi ezin.
Oro zorakeri uts,
ur-jolas ta ego-min.

Ni ari so, oldozkor...
Oi Jainko, Zu ez al zara itxaso?